

Paradisuak

Joxean AGIRRE

Mirari bat tarteko, Islamera konbertituko banintz eta paradisia irudikatzen hasteko aginduko balidate, ez nuke jakingo nondik hasi. Gaztetan bai, nire ingurua goitik behera aldatzeko asmoak nituen, baina urteekin, bere akats eta guzti, gizarte honi kariñoa hartzen joan natzaiola ohartu naiz.

Futbola, esate baterako, ez nuke baztertuko. Lehen gizarte berri baterako oztopo gisa ikusten nuen, baina orain zail egiten zait paradisuak irudikatzen asteburuetan Realaren golen bat edo beste ikusi gabe.

Larunbat arratsaldetako manifak ere bere horretan mantenduko nituzke, aspaldi honetan bezala, erakustaldi politi-

koak izateaz gain, taldeko loturak sendotzeko eta adiskide zaharrak agurtzeko parada ezin hobeak direlako.

Erlijio horretakoek irudikatzen duten birjina saldoaren ordeztu nik emakume bat edo beste utziko nuke, gutxi eta gertukoak, eta maitasunari hainbat leku emango nioke, adiskidetasunari.

Zerbait aldatzen hasita, lehendakaria aldatuko nuke eta, gure lagun batek dioen bezala, “reprise” gehiago duen bat jarri, eta aldaketekin jarraituz, zerga politika, diru-sarreraren berdintasuna edo generoen arteko arrakalari heldu behar ko bagenio ere, Arnaldok dioen moduan, anbizioarekin bai baina zuhurtziaz eta presarik gabe helduko genioke.

Badakit mundua amildegi klimatikora doan Titanic bat dela, badakit euskara

mokadu goxo bat dela marrazoen ozeanoan, badakit egoera geopolitikoa ez dagoela txisteak egiteko, baina betikotasuna izango genuke arazoak konpontzeko, irudikatzen dudana paradisuak antz izugarria baitu bizi dugun gizartearekin eta, ihes egiteko aukerarik banu, mundura itzuliko bainintzateke.

Gauzak, ordea, oso bestelakoak dira beste leku batzuetan. Gazako egoerari buruz, esate baterako, entzun dudana esaldirik gogorrena bertako bizilagun bati entzun nion, zioenean bazegoela jendea hildakoen inbidia sentitzen zuena, haiek sufritzeari utzi ziotelako. Hasten naiz pentsatzen nolako paradisia irudikatuko duten eta odolirik, saraskirik eta israeldar soldadurik gabeko leku batekin konformatuko direla

Ez sinetsi zapien magian

Maddi AIESTARAN

Bere kuadrillakoak imajinatu ditut alaba txikiei lepoan zapi moreak lotzen, txaketatxo moreen gainetik. Nagusitasun-irribarretxoa aterata zaio. Eta ez zaiolako gustatu, bizkarra eman dio komuneko ispiluari. Pasilloaren beste aldeko ispilu txikian ikus dezake bere motots narrasa. Argia itzali du, eta pasilloan doa, aurrera. Ilea askatu du, burua eta lepoa eta bizkarra eta gerria makurtuz. Berriz bildu du bi eskuekin, eta hiru buelta gomari. Horrela askoz hobeto. Etxepeko ikastetxeko haurren eta irakasleen eta guraoen “Konplize ditut eta” bukatu arte itxaron du. Txalo zaparrada bat. “Gora-borroka-femi-nis-ta!”. Txalo gehiago. Ekitalditxo feminista bukatutzat eman duenean, etxeko atea itxi du giltzaz. Kalean zehar,

harrituta begiratu die balkoietako, faroletako, paretetako banderola, zapi, aldarri moreei. Eta gaurko egunaren apartekotasunari erreparatzen dion bitartean, ebaki bat eskatu dio tabernako zerbitzariari.

Plazan jendea pilatzen hasi denean, hara hurreratu da. Zapi more bat eskaini diote; eskaini baino, eman. Bere kuadrillakoei begiratu die, han, urrunean. Hartu egin du. Eta ez zaio gustatu, baina hemen – eta gaur – ezingo dio ba inori bizkarrik eman. Zapi morea lotu du lepoan, eta manifestazioko jende pilari jarraitu dio bere kuadrillako lagunenean umekin batera.

Ez diot hitz panpox eta handinahirik aportatu nahi azaroko azken egunetan denok irensten gaituen “paripeari”. Joan manifara. Egin greba. Sinetsi aldarri ba-

tzuk. Denak ez. Zaindu kideak, zaindu zu. Bistaratu zaintza-eskubide kolektiboaren beharra. Exijitu baldintza parekideak. Egin garrasi. Sentitu harro, nahi baduzu. Eta listo. Sentitu ondo, hori egin behar zen gaur, baina zoaz etxera eta ikusi ez dela ezer aldatu. Jantzi zapia, nahi baduzu. Baina ez sinetsi zapien magian. Eragin eguneroko zera txikietan; erreparatu eguneroko apartekotasunari. Horrek inporta du, ez argazki soilak.

Gero, ahotsak urratutakoan, norbaitek entzun gaituela uste dugunean, balkoiek berriz grisa eta hotza aldarrikatzen dutenean, segitu dezagun gure borroka xumeetan, zapi ajatu zikinek jantziriko sukalde bakartietan, etxekideei postre goxoak prestatzen. •